

## ZUIAKARIRAKO ERREPORTAIA: KIRIKIO

### Elkartearen izena

Kirikio Euskara Taldea

### Helbidea eta kontaktua

Kepa Bañares  
Aldapeko Salgategi  
Manurga 01138  
e-posta: [kirikio@zigoitia.com](mailto:kirikio@zigoitia.com)

### Noiz sortu zen? Zein izan zen sortzeko arrazoi nagusia?

KIRIKIO Euskara Taldea 2004ko urte amaieran sortu zen. Momentu hartan, "Zigoitia Euskaraz" antolatzen parte hartzen genuen pertsona batzuek honen etorkizuna kolokan ikusi genuelako elkartu ginen eta euskara talde bezala eratzea erabaki genuen, euskaren aldeko konpromiso bateratu, zabal eta eraginkorrak lortu ahal izateko.

### Zein da elkartearen helburu nagusia? Zein da berezitasunik handiena?

Zigoitian euskara sustatzea, eta, bertan bizi diren euskaldunak biltzeko ekimenak antolatzea, eta, azken batean Zigoitiko euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzea.

Halaber, Zigoitiko talde eta erakundeekin (udalarekin) harremana izatea ezinbestekoa ikusten dugu euskararen normalizazioa lortzeko.

Berezitasunei dagokienez, zerbait aipatzekotan, gure jarduerak eta proposamenak Zigoitia osatzen duten 17 herrietara eramaten saiatu izan gara. Antolatu ditugun ekintzak ez ditugu beti toki berean burutu. Horrela, bertso-bazkariak Zaitegin, Ondategin eta Gopegin egin izan ditugu, Kantu Tailerra ere herri gehienetara eraman dugu eta gauza bera egiten saiatu gara Zigoitia Euskaraz barruan antolatutako ekintza guztiekin.

### Zein motatako jarduerak antolatzen ditu elkarteak? Esanguratsua den bat nabarmenduko zenuke?

"Zigoitia Euskaraz" barruan antolatzen diren ekintzak koordinatu, dinamizatu eta bultzatzearekin batera, aipatzekoa iruditzen zaigu azken sei urteetan hilean behin 15-20 pertsona euskaldun elkartzea lortu dugula "Kantu Tailer" baten inguruan, beti ere Ainhoa Ansaren laguntzarekin. Tamalez, 2009-2010 denboraldia azkena izan da oraingoz bertan behera gelditu baita jarduera hau.

### Irakurleentzako mezuren bat, gonbidapenen bat...

Momentu honetan taldean laguntza behar dugu, hots, pertsona eta ideia berriak behar ditugu. Zigoitian bizi bazara eta euskaraz bizi nahi baduzu, animatu eta gure taldearekin harremanetan jarri e-posta honetara mezu bat bidaliz:

[kirikiolariak@gmail.com](mailto:kirikiolariak@gmail.com)